



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

Ur Alguero Chivite
Mikel Baraibar Garmendia
Asun Arratibel Onsalo
Eden Alguero Chivite
Jon Gurrutxaga Etxeberria
Xabier Domingo Zubillaga Uranga
Francisco Javier Belaunzaran Mariezcurrena

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Ione Miren Lazkoz Maiza

Aresoko Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2015ko Ekainaren 13an, goizeko bederatzi eta erdiak direlarik, joan den maiatzaren 24ko hauteskundeetan hautatuak izan diren eta ondoren adierazten diren zinegotziak biltzen dira, Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura burutzeko.

Ur Alguero Chivite, Mikel Baraibar Garmendia, Asun Arratibel Onsalo, Eden Alguero Chivite, Jon Gurrutxaga Etxeberria, Xabier Domingo Zubillaga Uranga eta Francisco Javier Belaunzaran Mariezcurrenak ,Toki Araubideko Oinarri Legearen 75.7 artikulorekin bat, aldez aurretik, beren nortasuna egiaztatu eta bateraezintasun arrazoien, jardueren eta ondare ondasunen aitortpena egin dute, Korporaziokideen interes Erregistroan inskribatzearen ondorioetarako.

ADINEKO MAHAIA ERATZEA

Bilkura irekia deklaratu da, eta Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195.2 artikulorekin arabera, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi hoiek mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera. Beraz, erabakitzen da adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzi zaharrena, M^a Asub Arratibel Onsalo, adineko mahaiako lehendakaria
Zinegotzi gazteena, Francisco Javier Belaunzaran Mariezcurrena.
Adineko mahaiako Idazkaria, Ione Miren Lazkoz Maiza.

Adineko Mahaiak zinegotzien egiaztagutunak aztertzen ditu, beraien egokitasuna baieztatuz.

Jarraian, zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoenez, adineko mahaiak LEGEZ ERATUTZAT JOTZEN DU KORPORAZIO berria. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

Ur Alguero Chivite
Mikel Baraibar Garmendia
Asun Arratibel Onsalo
Eden Alguero Chivite
Jon Gurrutxaga Etxeberria
Xabier Domingo Zubillaga Uranga
Francisco Javier Belaunzaran Mariezcurrena

Honen ondoren, zinegotzi guztiek banaka banaka, zin egiten dute eta hitza ematen dute, legeak hala behartuta, Konstituzioa beteko dutela; eta beraien kargua hartzen dute.

Jarraian, idazkariak Aresoko Udalaren kontu korronteen saldoen berri eta udal ondarearen inbentarioaren berri ematen dio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten:

Korporazio berria jakinen gainean gelditzen da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Ondoren, Alkatea hautatzeari ekiten zaio, horretarako, aipatutako ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak bere 196 artikuluan ezarritakoari jarraiki, alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazten dira:

-“Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai



ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

-Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate

-Horrela gertatzen ez bada, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate

-Berdinketa balego zerrenda bat baino gehiagoren artean, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkatea”.

Horrela bada, UR ALGUERO CHIVITE Jauna (ARESO ERAIKIZ Taldekoa) zerrendaburu izanik, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona hemen lortutako botuen emaitza:

UR ALGUERO CHIVITE: Zinegotziak 7 boto

Bozketak erakusten duenez, **UR ALGUERO CHIVITE Jauna da Alkate**, bozketan gehiengo osoa lortu duelarik

Ondoren, UR ALGUERO CHIVITE Jaunak onartu egin du alkate izatea. Horrela izanik, Korporazioa aurrean duela, zin egin eta hitza ematen du, legeak hala behartuta Konstituzioa beteko duela, eta agindu egin du alkate kargua beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, UR ALGUERO CHIVITE Jaunak, hartu egiten du Alkate kargua.

Goizeko 10:35 direlarik, bilkura amaitu eta altxatu egiten da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.